

BIZILORE ESKOLA AKTIBOA

Elen Kortatxarena - BIODANTZA

Ikasketei dagokionez, Haur Hezkuntza Gradua eta Humanitateetan Lizentzia ikasketak burutu ditu.

Bestalde ,formazio desberdinak ere izan ditu: Pikler eta Malaguzziren inguruko 2 urteko ikasketak, Kabi Etxeetako hezitzaile izateko formazioa, Haurren Autonomiaren inguruko jardunaldiak, Pedagogia Sistemikoaren eta Psikomotrizitateko oinarrizko saioak, besteak beste. 2016az geroztik, Donostiako Biosintesis eskolan ere badabil pertsonen hazkuntza indibidual eta kolektiboan bidelagun izateko prestatzen.

Urteak eman ditu hezkuntza munduan lanean hurrekin, gazteekin nahiz helduekin. Gerora, bere garapen pertsonalaren bidean, biodantza sistemarekin egin zuen topo, besteak beste, eta horiek lotzen eta saretzen dihardu azken urteetan. Ondorioz, gorputz kontzientzia eta adierazpen saioak nahiz biodantza saioak eskaintzen ditu kolektibo desberdinetan irakaskuntzako profesionalentzat, emakume taldeentzat, haur jaioberriak dituzten gurasoentzat, haur eta gazteentzat, familientzat...etab.

Bizilore Eskola Aktiboa
Altamira 5, 20720-AZKOITIA

Telefonoa: 637705720
Email: bizilore@bizilore.eus
Web: www.bizilore.eus